


KOSTUEN EGITURA

Akordio bat egin dugu giltzarrapoaren hornitzailearekin eta giltzarrapo bakoitza 10€-tan erosiko dugu. Gero, guk hatz-markarekin irekitzeko teknologia erantsiko diegu erositako giltzarrapoei. Sarean bilaketa sakona egin ondoren, aurreikusten dugu horretarako makineria erosteko 60.000€ inguru beharko ditugula. Kopuru horren arabera mailegua eskatuko dugu. Diru-iturrietako dokumentuan adierazi dugun bezala, gutako bakoitzak 6.000€ jarriko ditugu (guztira 24.000€). Crowdfunding-aren bidez gutxi gorabehera 10.000€ euro irabaztea aurreikusten dugunez, eta Laboral Kutxarekin egindako akordio baten bidez 30.000€-ko mailegua eskatu dugunez, enpresarekin hasteko diru nahikoa izango dugu.



Kostu finkoen artean, lehen esandako makineriaren kostua daukagu (60.000€). Alokairua kostu finkoa izango litzateke ere bai, baina ez dugu ordaindu behar gure bazkide batek duen garaje batean arituko garelako.

Kostu aldakorrei dagokienez, makinak erabili ahal izateko argindarra ez dugu ordaindu behar, Miriamek garajearen dituen eguzki-plakak erabiliko ditugulako. Beraz, ingurumena ez dugu kaltetuko energia berriztagarria erabiliko dugulako. Horretaz aparte, giltzarrapoaren bidalketa bakoitzagatik 2,88€ ordaindu beharko diogu Correos enpresari.



Aurreikusten dugu 200 giltzarrapo baino gehiago ekoizten baditugu eskala-ekonomia lortuko dugula.